

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuaren inguruan hitz egitean, bi bezero mota daude; udalak eta garbitasun enpresak. Udalak gure bezero nagusiak izango dira; izan ere, haiek dira inbertsio bat egingo dutenak makinak hirietan eta herrietan jartzeko. Hala ere, garbiketa enpresek beraien lana errazteko tresna hau erabil dezakete, zigarroak lurretik jasotzea lan oso zaila eta astuna baita.



Aipatutako bi bezeroen ezaugarriak desberdinak dira. Udalak populazioaren ongizatea nahi du. Gure produktua herriak eta hiriak garbi mantentzeko eta zigarro-muturrek eragiten duten kutsadura murrizteko balio duenez, interesa piztuko zaie. Zigarro-punten kutsadura arazo bat dela argi dute, baina orain arte egon diren garbiketa moduek emaitza onik eman ez duenez, beste aukera hau eraginkorragoa izan daitekeela balioztatuko dute.

Erretzaileak aldiz, zigarro puntak lurrera botatzen dituzte, baina uste dugu hautabide honen berri izaterakoan aldatzeko nahia izango dutela. Edo gutxienez, produktua dagoen tokira eramaten saiatuko direla.